

Balio-proposamena

Deskribapena: gure produktuari iCloset deitu diogu.. Itxuraz denok ezagutzen dugun armairu ohikoa da, baina teknologia berria erabiliz armairu berritzaile azkar bat sortu dugu.

Armairuaren atearen erdialdean ukipen-pantaila bat dago, 10 hazbeteko luzera duena. Honekin batera, kode irakurle bat dago, erabiltzailearen arropa berrien etiketak irakurtzeko eta erraztasunez sailkatzeko.

Armairu honek arropa eguraldiaren eta urtaroaren arabera antolatzen du. Honen helburua bezeroari arropa-konbinazio ezberdinak eskaintzean datza, modu horretan denbora aurreztu egiten baita.

Ezaugarriak

- Azkarra (bai abiadura aldetik, zein teknologiaren erabilerarengatik ere)
- Erosoa (denbora aurrezten du eta aholkuak ematen ditu)
- Estetikoki polita (bakoitzaren arabera pertsonalizatu daiteke)

Balio-proposamena eta lehiarako abantailak.

Bezeroei ematen dizkiegun balioak denbora aurreztea, edozein pertsonarentzat egokitua egotea eta teknologia berriaren erabilera eskaintzea dira. Lehen aipatu dugun bezala, denbora aurreztu ez ezik, aholkuak ematen dizkio bezeroari. Beraz, arropa erraztasunez aukeratzea baliatzen dio.

Beste armairu batzuekin alderatuz, iCloset-ak ez dute bakarrik arropa gordetzearen funtzioa betetzen, baizik eta lehen aipatutako ezaugarriak eskaintzen eta funtzioak betetzen dituzte. Gainera, bezeroaren gustukoa izatea ahalbidetzen dugu, pertsonalizatzeko aukera baitago. Eskaintzen dugun guztia kontuan hartuta, prezioa familia gehienek diru-sarreretara egokituta dago, ezagutzen dugun beste edozein armairuen prezioekin lehia gogorra eginez. Gure produktuaren balioa kuantitatiboa (prezioa lehiakorra duelako) zein kualitatiboa (kontzeptu berriztagarri bat delako) dela esan dezakegu.